

| PROGRAMA | KONTZEPTUA | ZENBATEKOA |
|--|------------|------------|
| 12120 | 610 | 30.711.000 |
| | 621 | 9.800.000 |
| GUZTIRA | | 40.511.000 |
| Sarrerei buruzko ondorengo egoera-orrian beste horrenbesteko sarrerekkin lortzen dira kredituok. | | |

| PROGRAMA | KONTZEPTUA | ZENBATEKOA |
|--|------------|------------|
| 12110 | 380 | 40.511.000 |
| Hainbat sail hartzen dituzten eraikin eta instalazioetan obrak egiteko erabiliko dira fondoak. | | |

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren bihamunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko irailaren 17an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

OSASUN SAILA

4606

223/1996 DEKRETUA, irailaren 17koa, elikagaien jardunak, industriak eta establezimenduak Euskal Autonomi Elkartean jarduteko sanitate-baimenak emateari buruzkoa.

Enpresei eta produktuei sanitate-baimena eskatzea arau-bidez egingo dela xedatzen da Sanitateari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorreko 25.1 atalean.

Elikagaien Sanitate Erregistro Orokorrari buruzko azaroaren 29ko 1712/1991 Errege Dekretuko 3. atalean, industri edo establezimenduak jardunean jartzeko sanitate-baimena behar dela xedatzen da. Horretan agintea duen Autonomi Elkartek eman beharko du baimen hori, industria edo establezimendua kokatuta dagoeneko lekua kontutan hartuta. Bezeroen babes arloko eta nekazaritzako elikagaiak produzitze-arloko arauhaustek eta zigorak arautzen dituen ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretuan, sanitate arloaren kontrako arauhaustetzat jotzen da establezimendu horiek baimen barik funtzionatzen egotea.

Bestalde, elikagai produktuen kontrol ofiziala arauzen duen urtarrilaren 15eko 50/1993 Errege Dekretu-

| PROGRAMA | CONCEPTO | IMPORTE |
|----------|----------|------------|
| 12120 | 610 | 30.711.000 |
| | 621 | 9.800.000 |
| TOTAL | | 40.511.000 |

Estos créditos se generan por la obtención de ingresos por el mismo importe en el siguiente estado de ingresos:

| PROGRAMA | CONCEPTO | IMPORTE |
|---|----------|------------|
| 12110 | 380 | 40.511.000 |
| Los fondos se destinarán a la realización de obras en edificios e instalaciones de carácter multidepartamental. | | |

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de septiembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.
El Consejero de Hacienda y Administración Pública,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

4606

DECRETO 223/1996, de 17 de septiembre, de autorizaciones sanitarias de funcionamiento de las actividades, industrias y establecimientos alimentarios en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad, en su artículo 25.1 establece que la exigencia de autorizaciones sanitarias a empresas y productos serán establecidos reglamentariamente.

El Real Decreto 1712/1991, de 29 de noviembre, sobre Registro General Sanitario de Alimentos, en su artículo 3.º exige, para la inscripción en dicho Registro, la previa autorización sanitaria de funcionamiento de las industrias o establecimientos, otorgada por la Comunidad Autónoma competente por razón del lugar de ubicación de la industria o establecimiento, y el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio, por el que se regulan las infracciones y sanciones en materia de defensa del consumidor y de la producción agroalimentaria, considera infracción sanitaria el que dichos establecimientos funcionen sin autorización.

Por otro lado, el Real Decreto 50/1993, de 15 de enero, por el que se regula el control oficial de los pro-

ko eta elikagai produktuen kontrol ofizialari buruzko gehigarritzko arauak onartzen dituen abuztuaren 4ko 1397/1995 Errege Dekretuko ataletan, honako hau finikatzen da: produkzio kateiak hartzen duen aldi osoan zehar elikagai produktuen gaineko kontrolak burutu behar direla, sanitate publikoaren aukako arriskuak alboratu ahal izateko. Europako Batasunak ekainaren 14an eman zuen 93/43/ Direktibaren bidez eskualdazten diren elikagai produktuen gaineko higiene-arauak ezartzen dira abenduaren 28ko 2207/1995 Errege Dekretuaren bidez. Elikagaiai gertatzerakoan, lantzerakoan, eraldatzerakoan, ontziratzerakoan, gordetzerakoan, garraiatzerakoan, banatzerakoan, manipulatzera-koan, saltzerakoan edo hornitzerakoan bete behar diren higiene-arau orokorrak finkatzen dira dekretu horretan eta bai arau horiek betetzen diren ala ez ziurtatzeko moduak ere.

Horiek horrela, egokitzat jotzen da, elikagaien jardunak, industriak eta establezimenduak Euskal Autonomi Elkartean jarduteko sanitate-baimenak arautzea. Eta hori, sanitate publikoa babestu ahal izateko, baimen horiek emateko jaso ziren datuei buruzko informazioa eskainiz, abiapuntuko eta destinoko kontrol ofizialen behar bezalako programazioa bermatuz eta, sanitate publikoaren aukako arriskua egotea gerta dadin kasuetan, berehalaxe parte hartuz.

Ondorioz, Osasun sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko irailaren 17an egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.— Hauxe da dekretu honen xedea: elikagaien jardunak, industriak eta establezimenduak Euskal Autonomi Elkartean jarduteko sanitate-baimenak arautza eta, aldi berean, baimena lortzeko bete behar diren baldintzak eta eginbeharrik finkatzea.

2. atala.— Gero aipatzen diren jardunetakoren bat Euskal Autonomi Elkartean burutzen dituen, nahiz irabazte xedetuna den, nahiz irabazte xederik ez duen enpresa publiko edo pribatu oro jotzen da elikagai-jarduntzat, industritzat edo establezimendutzat. Hona hemen jardun horiek: elikagai produktuak importatzea, gertatzea, egitea, eraldatzea, ontziratzea, gordetzea, garraiatzea, banatzea, manipulatzea, saltza edo hornitzea.

3. atala.— Aurreko atalean aipatu diren eragiketa horietako bat edo batzuk burutu ditzaten enpresa guztiek, jarduteko sanitate-baimena eskuratu beharko dute jardunei ekin baino lehen; eta, horretarako, dekretu honen bidez ezartzen diren baldintzak betetzen diren edo ez ziurtatu beharko da, bidezkoa den ikuskaritzai-kustaldia eginez.

4. atala.— Jarduteko sanitate baimena lortu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte elikagai-jardunek, industrieik eta establezimenduek:

ductos alimenticios y el Real Decreto 1397/1995, de 4 de agosto, por el que se aprueban medidas adicionales sobre el control oficial de productos alimenticios, en su articulado recogen la necesidad de llevar a cabo controles durante toda la cadena productiva, sobre los productos alimenticios, con la finalidad de prevenir riesgos para la salud pública, y el Real Decreto 2207/1995, de 28 de diciembre, por el que se establecen las normas de higiene relativas a los productos alimenticios que traspasa la Directiva 93/43/CEE, del Consejo, de 14 de junio, señala las normas generales de higiene de los productos alimenticios y las modalidades para la verificación de la observancia de dichas normas durante su preparación, fabricación, transformación, envasado, almacenamiento, transporte, distribución, manipulación y venta o suministro al consumidor.

Por todo lo anterior, se considera oportuno regular las autorizaciones sanitarias de funcionamiento de las actividades, industrias y establecimientos alimentarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el fin de proteger la salud pública a través de la gestión de la información de los datos proporcionados para la concesión de las mismas, garantizando una adecuada programación de los controles oficiales, tanto en origen como en destino, así como intervenciones inmediatas en aquellos casos en que exista un peligro para la salud pública.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 17 de septiembre de 1996,

DISPONGO:

Artículo 1.— El presente Decreto tiene por objeto la regulación de las autorizaciones sanitarias de funcionamiento de las actividades, industrias y establecimientos alimentarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, estableciendo las condiciones y requisitos que han de cumplir para obtener la correspondiente autorización.

Artículo 2.— A los efectos de este Decreto, se considera actividad, industria o establecimiento alimentario, toda empresa, con o sin fines lucrativos, pública o privada, que lleve a cabo, en el ámbito territorial del País Vasco, cualquiera de las operaciones siguientes: importación, preparación, fabricación, transformación, envasado, almacenamiento, transporte, distribución, manipulación y venta o suministro de productos alimentarios.

Artículo 3.— Todas las empresas que realicen una o varias operaciones de las indicadas en el artículo anterior, deberán obtener la autorización sanitaria de funcionamiento antes del inicio de sus actividades, previa comprobación, mediante la correspondiente visita de inspección, del cumplimiento de los requisitos establecidos en este Decreto.

Artículo 4.— Para obtener la autorización sanitaria de funcionamiento las actividades, industrias y establecimientos alimentarios han de reunir los siguientes requisitos:

a) Aplikagarriak diren arauetan aipatzen diren baldintza tekniko-sanitarioak betetzea.

b) Bere jardunetarako egokiak diren autokontrol-sistemak bermatzea.

5. atala.- 1.- Enpresaren titularrak edo legezko ordezkariak egingo duen eskabidearen bidez emango zaio hasiera baimen-espeditenteari. Osasun Publikorako zuzendariari egingo zaio eskabidea eta, enpresa kokatuta dagoeneko lekuaren arabera, dagokion Osasun Lurralde Ordezkartzan aurkeztu beharko da.

2.- Burutuko diren jardunak jasoko dituen memoria bat erantsiko zaio eskabideari.

6. atala.- Aurkeztutako eskabide eta agiriak aztertu ondoren, ikuskaketa bisita egingo da, instalazioak dekretu honetan aipatzen denari eta bidalitako memoriaian jasotzen diren helburuei egokitzen zaizkien ala ez ziurtatu ahal izateko.

7. atala.- 1.- Jarduteko sanitate-baimenaren aldeko eskabideari Osasun Publikorako zuzendariak emango dio ebazpena, Elikagaien Sanitate Erregistro Orokorrean inskribatu behar diren jardun, industri eta establecimientos que han de inscribirse en el Registro General Sanitario de Alimentos.

Erregistro horretan inskribatu beharrik gabeko enpresa batek eskabidea egitea gertatuz gero, dagokion Osasun lurralteko ordezkariak emango dio ebazpena.

2.- Administracioak eskabideari eman behar dion erantzun espresuaren kaltetan gabe, jarduteko sanitate-baimena emandakotzat joko da, eskabidea aurkeztu zenetik sei hilabete igaro eta erabaki espresurik ez ematea gertatu bada.

8. atala.- Jarduteko sanitate-baimenaren indarraldia bost urtekoa izango da, instalazioetan edo baimena ematerakoan betetzen ziren inguruabarretan funtsezko aldaketarik egon ez dadinaren baldintzaapean. Epealdi hori betetakoan, baimena eskatu beharko da berriro. Baliotasunaren azken eguna bete baino hilabete lehenago aurkeztu beharko da berritzeko eskabidea eta, izapidegintzan, dekretu honetako bosgarren, seigarren eta zazpigarren ataletan xedatzen dena bete beharko da.

9. atala.- Dekretu honetan aipatzen diren betekizun eta baldintzak betetzen diren ala ezaren kontrola eta ikuskaritza egitea, Osasun Saileko lurralteko ordezkari-zei dagokie.

10. atala.- Dekretu honetan xedatzen denaren aurkako arauhausteak Administrazioaren zigorraren gai izan daitezke bidezkoa den espeditenteari izapideak eginarazi ondoren, apirilaren 25eko 14/1986 Legeko VI. atalburuan, ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretuan eta aplikagarriak izan daitezkeen osagarrizko eta geroagoko arauetan xedatzen denari jarraituz.

11. atala.- Sanitateari buruzko Lege Orokorreko 37. atalean xedatzen denaren arabera, baimenik gabeko establecimientos, instalazioak edo zerbitzuak ixtea ez da zigortzat hartuko eta ez, akatsak zuzendu arte edo sanitate, higiene edo segurtasun mailako arrazoak direla medio eskatutako baldintzak bete arte, jardunak geldi araztea ere.

a) Cumplir las condiciones técnico-sanitarias fijadas en la normativa de aplicación.

b) Garantizar los sistemas de autocontrol adecuados a su actividad.

Artículo 5.- 1.- El expediente de autorización se iniciará mediante una solicitud del titular o representante legal de la empresa, dirigida al Director de Salud Pública, y presentada en la Delegación Territorial de Sanidad correspondiente por razón de la ubicación de la empresa.

2.- La solicitud irá acompañada de una memoria en la que consten las actividades a realizar.

Artículo 6.- Una vez examinada la solicitud y la documentación aportada, se procederá a realizar una visita de inspección, para comprobar la adecuación de las instalaciones a lo señalado en este Decreto y a los fines previstos en la memoria remitida.

Artículo 7.- 1.- La solicitud de autorización sanitaria de funcionamiento, que no excluye cualquier otra que sea necesaria, será resuelta por el Director de Salud Pública, para aquellas actividades, industrias y establecimientos alimentarios que han de inscribirse en el Registro General Sanitario de Alimentos.

Si la solicitud es de una empresa que no debe inscribirse en dicho Registro, su resolución corresponderá al Delegado Territorial de Sanidad correspondiente.

2.- Sin perjuicio de la obligación que tiene la Administración de resolver expresamente, se entenderá concedida la autorización sanitaria de funcionamiento si, transcurridos seis meses desde la presentación de la solicitud, no ha recaído resolución expresa sobre la misma.

Artículo 8.- La autorización sanitaria de funcionamiento tendrá una validez de cinco años, siempre y cuando no se produzcan modificaciones que alteren de modo sustancial las instalaciones o las circunstancias de su otorgamiento, debiendo solicitarse su renovación transcurrido ese plazo. La solicitud de renovación se presentará un mes antes de la fecha límite de validez, y su tramitación seguirá lo dispuesto en los artículos cinco, seis y siete de este Decreto.

Artículo 9.- El control e inspección del cumplimiento de los requisitos y condiciones establecidos en el presente Decreto corresponde a las Delegaciones Territoriales del Departamento de Sanidad.

Artículo 10.- Las infracciones a lo dispuesto en el presente Decreto podrán ser objeto de sanciones administrativas, previa instrucción del oportuno expediente, de conformidad con lo dispuesto en el Capítulo VI de la Ley 14/1986, de 25 de abril, en el Real Decreto 1945/1983, de 22 de junio y normas complementarias y posteriores que les sean de aplicación.

Artículo 11.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 37 de dicha Ley General de Sanidad, no tendrán carácter de sanción, la clausura o cierre del establecimientos, instalaciones o servicios que no cuenten con las previas autorizaciones, o la suspensión de su funcionamiento hasta tanto se subsanen los defectos o se cumplan los requisitos exigidos por razones de salud, higiene o seguridad.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Elikagai-jardunak, industriak eta establezimendua Dekretu honetan xedatzen denari egokitzeko bi urteko epea ematen da, dekretu hau indarrean jarri dadin egunetik hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. – Osasun Sailaren eta Osakidetza Erakunde Administrativo Autonomoaren egitura organiko eta funtzionalak ezartzen dituen uztailaren 11ko 369/1995 Dekretuko 7.1.c) eta 10.1 atalak aldatu egiten dira, dekretu honetako 7.1 ataleko in fine aldean xedatzen denari jarraituz.

Bigarrena. – Dekretu honetan aipatzen ez diren procedura mailako aldeei dagokienetan, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Hirugarrena. – Osasun sailburuari esku ematen zaio, dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Laugarrena. – Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharnean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko irailaren 17an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se concede un plazo de dos años, a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, para que las actividades, industrias y establecimientos alimentarios adecuen su funcionamiento a lo dispuesto en el mismo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. – Se modifican los artículos 7.1.c) y 10.1 del Decreto 369/1995, de 11 de julio, por el que se establecen las estructuras orgánicas y funcionales del Departamento de Sanidad y del Organismo Autónomo Administrativo Osakidetza-Servicio vasco de salud, en los términos previstos en el artículo 7.1 in fine del presente Decreto.

Segunda. – En todos los aspectos procedimentales no previstos en este Decreto, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Tercera. – Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las disposiciones necesarias para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

Cuarta. – Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de septiembre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

Agintariak eta Langileria**Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak****OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA****4607**

AGINDUA, 1996ko irailaren 20koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Carmen Asín Chueca andrea, Zerbitzu zuzendariaren goi-kargudunaren idazkari izatetik kentzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 50.2 atalean xedatutakoaren arabera eta Lege berorretan egotzitako aginpidiez baliatuz, hauxe

Autoridades y Personal**Nombramientos, Situaciones e Incidencias****DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA****4607**

ORDEN de 20 de septiembre de 1996, del Consejero de Hacienda y Administración Pública, por la que se dispone el cese de Dña. Carmen Asín Chueca como Secretaria de Alto Cargo del Director de Servicios.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 50.2 de la Ley 6/1989 de 6 de julio de la Función Pública Vasca y en uso de las atribuciones conferidas por esta misma Ley,